



Elkargokide agurgarriak,

Udako atsedenaldiaren ondoren indarrez eta ilusioz ikasturte berri bati hasiera ematen diogu. 2015-16 ikasturte hau gure hautagai-zerrendaren lan helburuak lortzeko bulkada izatea nahi dugu.

Elkargoa aurrera egiteko eta lanbideraren esparru guztietan, modu batean edo bestean, present egoteko lankidetzan aritzen dutenekin harremanetan eman dugu aurreneko hil hauetan.

Elkargoa zareten partaide guztion beharrak eta eskaerak zuzen zuzenean jakin nahi ditugu.

Hori dela eta, zuek dituzuen edozein eskaera, eskakizun edo zalantza guri elaraztea animatzen dizuegu eta ahal dugun hoberen erantzuten saiatuko gara.

Eskerrak lanbidea hazten aritzeagatik.

Elkargoko Batzordea.

GIZARTE HEZITZAILEEN ELKARGOEN KONTSEILU NAGUSIA



2016 Sevilla 21, 22 y 23 Abril

¡A MÁS EDUCACIÓN
SOCIAL
MÁS CIUDADANÍA!

Gizarte Hezkuntza Nazioarteko Eguna CGCEESek urriaren 2an Sevillan ospatu zuen Pablo Olavide Unibertsitatean **"Gizarte Hezkuntza, lanbide eraldatzailea"** titulupean ospatu zen.

Erakunde antolatzaileen ordezkariak eta beste gonbidatuak ekitaldiari haisera eman ondoren, Lola Marquezek datorren urtean izango dugun Gizarte Hezkuntza VII.Kongresua aurkeztu zuen.

Iñaki Rodriguez Kode Deontologikoari buruzko azalpen eman eta haren alderdi batzuetako aldaketa posiblearen berri eman zuen.

Toni Julia 3.Memorialaren lehiaketaren epai mahaiaren partaideek norbanako eta taldeko kategorien irabazleen izenak eman zituzten.

GHEE-CESPVREN BERRIAK**GIZARTE HEZKUNTZA NAZIOARTEKO EGUNA URRIAREN 2KO JARDUNALDIAK**

Gizarte Hezkuntza Nazioarteko Eguna ospatzeko Elkargoak aipatzen diren fakultate eta unibertsitate eskolako irakasle eta ikasleekin parte hartu zuen:

***" Kontatutako Istorioak Ehuntzen" Leioako Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskolan**

Haien ibilbide personala izandako bost Gizarte hezitzaileek nola eta zergatik Gizarte Hezkuntza unibertsitate prestakuntza egin zuten kontatu ziguten. Gizarte Hezkuntza zerbitzuen erabiltzaile batek ere Gizarte hezitzaileekin izandako bizipena azaldu zigun.

Bideo eta musikaren bitartez ikasle batzuk ere haien sentipenak erakutzi zizkiguten.

Ekitaldian parte hartu genuenok gure ekarpenak emateko Istorioen Ehundegian ikasle eta irakasleak antolatu zituzten, baita Gizarte Hezkuntzari nahi genuena esateko beste jarduera bat ere. "Qué vida más triste...la de la Educación Social, o no?" umorista bikote batek erakutzi ziguten.

Educablogeko partaideak jardunaldiaren diseinu, atolaketa eta garatzeko elkarlana izan genuen

"FHZFan Gizarte Hezkuntza titulazioa. Profesioa eraikitzekeko urrats bat gehiago" Ibaeta-Donostian.

Aipatutako izenburuko jardunaldia Gizarte Hezkuntza Diplomatura UPV/EHUko FHZFan abian jarri zeneko 20.urteurrena ospatu zen. Jarduera UPV/EHUko Donostiako Canpusan Gizarte Hezkuntza Nazioarteko Egunean Filosofia eta Hezkuntz Zientzia Fakultateak eta Gizarte Hezitzaileen Elkargoak antolatuta egin zen. Ekitaldian hirurogeita bi Gizarte hezitzaile eta ikasle inguru parte hartu zuten.

Bi erakunde antolatzaileen ordezkariak hasiera ekitaldiari eman ondoren, Felix Etxeberriak tituluaren eragileak gizarte hezkuntza ikasketak abiatze prozezu historikoari heldu zion eta Pello Ayerbe proiektukideari, aurten zendu dena, gorazarre egin zioten.

Mahai inguru batean administrazio eta lan munduko ordezkariak lanbideari buruz eta azken 20 urtetan Gizarte hezkuntza hainbat alorretan izandako bilkaera eztabaidari ekin zioten.

Azkenik lehen promozioke hiru gizarte hezitzaileak haien bizipenak partekatu zituzten.

***"EDUSODAY 2015" Deustoko U. Bilbon**

Ekintza Deustoko Unibertsitateko Klaustroan egin zen, ikasle, irakasle eta GHEE-CESPVek elkarlanean burututa ospatzeko une aproposa izan zen.

Jardueran Gizarte Hezkuntza zer da? gaiari buruzko idatzi batzuen tarte batzuk irakurri genituen, The Godoys Wonderers musika jo eta musika klasiko lan batzuk hirukote batek abestu zituzten bitartean.

LANBIDEAREKIKO INFORMAZIOA

**HARRERA PROFESIONALIZATUA BIZKAIAN
BEHARRIZANA, ERRONKA, AUKERA**

2015ean, Bizkaiko Foru Aldundiak famili harrera profesionalizatua jarri du abian, gizarte esku-hartzeko profesionalak 11 urtetik aurrerako adingabe bat epe jakin batean etxean hartzeko aukera zabaltzeko. Famili harrerako modalitate honek proiektu berritzaile bat eskatzen du, jatorrizko familiekin bizi ezin eta harrera zentroetan bizi diren neska-mutilen zaintzarako beste aukera batzuk bilatzeko asmoa duena.

Neska-mutil hauek modu jarraituan zaindu eta hauen jokabide, trebetasunak eta egoera hobetzeko eta etorkizuneko aukerak zabaltzeko aukera egon badagoela uste duten Bizkaiko gizarte esku-hartzeko profesional guztiak gonbidatu nahi ditugu gazte hauei aldi baterako familian bizitzeko aukera ematera.

HARRERA-EMAILE PROFESIONALA izateko hiru arrazoi:

...BEHARRIZANA...

Famili harrerari esker 9 urtera arteko haur askok aukera izan dute harrera familia boluntario batean bizitzeko, baina askoz ere gehiago dira harrera profesionalizatu baten onura jaso eta aldi batean familia batean hazi daitezkeen neska-mutilak; izan ere, horrek jokaera arazoetan eta gizarte eta emoziozkoetan lagundu egiten die.

Neska-mutil horien arteko gehienak harrera zentroetan bizi dira. Horiek baliabide prestuak dira, talde profesional eta ekipamendu onak dituztenak; baina ezin dute gazte hauek behar duten zaintza jarraitua eta banakatua eskaini. Harrera profesionalizatua aukera eraginkorra eta normalizatzailea izan daiteke.

...ERRONKA...

Neska-mutil hauek jasandako tratu txarren bizipenek utzitako zauriak sendatzeko, pazientzia, uste sendoa eta konpromiso dosi handiak behar dira, bai eta profesionalen eskarmentua, ezagupena eta trebetasuna ere.

Izan ere, harrera-emaile profesionala izateak Bizkaiko Foru Aldundiarekiko lankidetzak eskatzen du: adingabeko hauen erresilientzia sustatu eta gaitasunak hobetzen lagunduko duen programa trinko bat –gizarte eta hezkuntza mailakoa eta terapeutikoa- landu beharra dago lankidetzak horretan.

Gainera, ziur gaude programa berri hau burutzeko moduko aukera da, beharrezkoa, erronka profesionala eskatzen duena. Famili babesgabetasun egoera larriak, jatorrizko familiengandiko banaketa bizipen traumatikoak eta halakoak bizi izan dituzten adingabekoen emoziozko mundura hurbiltzea MEREZI DU.

... AUKERA ...

Neska-mutilentzako aukera bat eta lanerako aukera desberdina, zorrotza, eta interesatuei lan arloan hazten lagundu dezakeena. Harrera-emaile profesional gisa lan egiteak ebaluazio fasean dagoen lan aukera bat eskaintzen du, eta datozen urteetan aukera hori sendotzeko bidean dela uste da, gainera. Famili Harreraren arloan eskarmentu handia duen lan-talde baten barruan lan bizipen berri bat da, eta Bizkaiko Foru Aldundiko Haurren Babeserako Zerbitzuaren azken bermea duena.

Gure sektorean profesional multzo handia dago, prestakuntza handikoa, neska-mutil hauen beharrezkoak zein diren ondo dakitenak eta hauen zailtasunei aurre egiteko trebetasunak dituztenak.

Gauzak horrela, Bizkaian gizartegintzan lan egiten duten EMAKUME ETA GIZONEZKO GUZTIAK gonbidatu nahi ditugu Bizkaiko Foru Aldundiarekin eta Agintzarirekin lankidetzan aritzera eta BIZIPEN HAU beharrezkoak duten neska-mutil askorentzat aukera eta erronka izan dadin lortzen laguntzera.

Informazio gehiago

<https://www.dropbox.com/sh/rvm1eysm99zhmiw/AABk5433tmV834mtDSDX6mPBa?dl=0>

Harremanetarako: 94.612.51.15; epaf-profesionalizado@agintzari.com


ZUEN ZAIN GAUDE !!!

Alberto Rodríguez

AGINTZARI

Gipuzkoan ere harrera profesionalizatua ere abian da.

INTERESGARRIKOAK

Programa de empoderamiento familiar para la prevención del riesgo en menores

Juan, M., et al., *Programa FERYA. Familias en red y activas. Programa de empoderamiento familiar para prevenir los riesgos que afectan a los menores*. Palma de Mallorca, IREFREA. Instituto Europeo de Estudios en Prevención, 2014, 219 p.

El programa pretende dar respuestas pragmáticas, estructuradas y organizadas a una serie de cuestiones relacionadas con la promoción de estilos saludables de los adolescentes, y la prevención de conductas de riesgo, a partir de la movilización de las organizaciones donde hay representatividad directa de las familias.

20 años de investigación en Educación Social. Revista de Educación Social (Fund. Pere Tarrés) nº 60

En estos 20 años la educación social ha pasado de ser una profesión prácticamente desconocida a ser una actividad que está en el centro de la acción socioeducativa y forma parte activamente de las propuestas interdisciplinarias e interprofesionales. En cuanto

a la producción de conocimiento, empezamos siendo una revista en papel que funcionaba mediante suscripciones y ahora somos una publicación digital, de acceso libre, que llega a un número importante de profesionales, estudiantes y personas investigadoras.

**RES número 21 Educación Social y Género.****Accesibilidad cognitiva. Modelo para diseñar espacios accesibles a nivel cognitivo**

El libro se ha realizado de manera totalmente gratuita por La Ciudad Accesible para difundir el mensaje de accesibilidad cognitiva y hacer que llegue a todo el mundo ya que no hay publicaciones especializadas al respecto y puede contribuir a un desarrollo más humano de la sociedad para que no excluya a otras personas por la ausencia de la implementación de criterios de accesibilidad cognitiva. Con estos contenidos se demuestra la validez del modelo y la demostración de que la accesibilidad cognitiva tiene un marco teórico y metodológico que está a disposición de todos aquellos que aspiren a trabajar en Accesibilidad Universal.

Estrategia Vasca de Envejecimiento Activo 2015-2020

Dirección de Servicios Sociales, Estrategia Vasca de Envejecimiento Activo 2015-2020.

Vitoria-Gasteiz, Departamento de Empleo y Políticas Sociales, Eusko Jaurlaritza-Gobierno Vasco, 2015, 165 p.

Ref. 503054

Localización: SIIS 503054 / SIIS Archivo (acceso restringido)

[Acceso documentos SIIS](#)

URRENGO BOLETINETAN SARTZEKO PROPOSAMEN ETA IRADOKIZUN ceespv@ceespv.org RA BIDALI AHAL DITUZUE. ERA BEREAN, ZUEN INTERESEKOA DEN EDOZEIN ESPARRUTAN PARTE HARTZEKO GUREKIN HARREMANETAN JAR ZAITEZTE.